

EBAZPENA, 2023ko urriaren 16koa, Ikastetxe eta Plangintza zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Batxilergoko Sari Bereziak arautzen dituen eta sari horiek emateko baldintzak ezartzen dituen agindu-proiektua.

Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen du Agindu bat egitea Batxilergoko Sari Bereziak arautzeko eta sari horiek emateko baldintzak ezartzeko.

Proiektu honen helburua batxilergoko sari bereziak arautzea eta sari horiek emateko baldintzak ezartzea da. Agindu honek orain arte gaia arautu duten dekretuak ordeztuko ditu, eta horretarako, izaera atemporal izango du, urtero egiten diren Batxilergoko Sari Bereziak arautzeko oinarri izango dena.

Honako izapide hauek egin dira jendaurreko informazioaren ebazpen hau eman den egunera arte:

Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatutakoa betez; herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzeari buruzkoa, arauaren testua egin aurreko kontsulta publikoa bideratu da, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoaren iragarki-taulan iragarkia jarrita. Bertan, eragindako herritarren eta arauak eragiten dien eskubide edo interes legitimoak dituzten pertsonak biltzen edo ordezkatzeko dituzten erakunde edo elkarten iritzia jaso da, arauaren xedearekin lotura zuzena duten helburuei dagokienez.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoa betez, Hezkuntzako sailburuak hasiera emateko agindua eman zuen 2023ko irailaren 22an, martxoaren 29ko 39/2022 Dekretuak aldatu zuen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 16. artikuluan emandako eskumenak baliatuz.

Era berean, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legean xedatutakoari jarraituz, Hezkuntzako sailburuak, 2023ko urriaren 10ean, izapidetzen ari den dekretu-proiektua aldeztatik onartzeko agindua eman zuen.

Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legearen 17. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorritik, lege honetan aurreikusitako aldeztatik kontsultaren, entzunaldiaren eta informazio publikoaren izapideak egin behar dira, baldin eta herritarren eskubide eta interes legitimoak zuzenean eragiten bazaie eta artikuluan honetan aurreikusitako salbuespen-kausaren bat gertatzen ez bada.

Horretarako, jendaurrean jartzen baita Batxilergo Sari Bereziak arautzen dituen eta sari horiek emateko baldintzak ezartzen dituen agindu-proiektua, hogeitun egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Martxoaren 29ko 39/2022 Dekretuak aldatu zuen otsailaren 23ko 71/2021 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duenak, 16. artikuluan emandako eskumenei jarraikiz, honako hau



EBAZTEN DUT

Lehenengoa. – Batxilergoko Sari Bereziak arautzen dituen eta sari horiek emateko baldintzak ezartzen dituen agindu-proiektua jendaurrean jartzea, hogeit hamar egun balioduneko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena. – Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, eta herritarrek alegazioak aurkeztu ahal izan ditzaten, adierazitako proiektuaren edukia eskuragarri egongo da Hezkuntza Saileko Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaritzan (Donostia kalea 1, Vitoria-Gasteiz) eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen iragarki-oholean: <https://www.euskadi.eus/iragarki-taula-elektronikoa/>.

Vitoria-Gasteiz,

Ikastetxe eta Plangintza zuzendaria,

EUGENIO JIMÉNEZ IBÁÑEZ.